

## KRABELIÑA    ETA    OSIÑA.

---

(NERE ADISKIDE JUAN IGNACIO URANGA-RI).

Krabeliñ churi gorri  
bizirot polita,  
zeguan osto ederrezz  
ederki jantzita;  
esaten zuben:—«Ai zer  
ederra naizen ni,  
nere parekorikan  
ez dira beste bi;  
pena det belar chatar  
oyen inguruan,  
bizi bear detala  
luzaro munduban...—  
Osiñak esan zion:  
—«Adi beza, jauna  
jbakarrak nai al-luke  
jaso emen fama?  
bada guk ere zerbait  
nai genuke izan,  
beok desio eder  
dutaren gisan...—  
¡O zer belar char zera  
ikutu eziña!  
Esan zazu,—¿zer zera?  
—¿zer naizen?.. Osiña..  
Ez pentsatu dubela  
baliyo ichurak,  
askotan nik sendatzen  
baititut tristurak:  
gizon asko dirade

gaur nerekir fiyo,  
nere urak zenbaiti  
on egiten diyo:  
bañan beok jichura  
besterik aldute?  
jezer gauzetalako  
baliyo ez dute;  
beon politasunak  
ere, du baliyo,  
gu, itsusiyak emen  
gerala meriyo;  
zergatikan ez balitz  
iñon itsusirik,  
politak ez luteke  
estimaziyorik....  
Egiya da, orain naiz  
kontura erori,  
zerbait grazi zigula  
Jaunak jarri guri.

Naiz dala jayo polit  
edo ta itsusi,  
mundu ontan guztiyak  
dute zerbait grazi;  
zergatik gertatzen da  
askotan gizona,  
gauz baterako charra,  
besterako ona.

---

JOSÉ ARTOLA.